

AGIRIA

Hezkuntza teknologikoaren aldeko adierazpena

Hezkuntzaren Lege Organikoa ezartzen denean, gure Hezkuntza Sistemak beste erreforma orokor bati egin beharko dio aurre. Horrela, gure eskolei egonkortasuna eman nahi diete, azken 15 urteotan hainbat erreformak — orokorrak edo partezkoak— astinduta. Aldi berean, eta gure gizartearen gaurko eta etorkizuneko beharrei erantzute aldera, nahitaezko modernizazioari helduko zaio.

Helburu bikoitz honek nabarmentzen du Lege berri hau idaztean hartuko diren erabakien garrantzia, eta egun hauetan aurkeztutako Aurreproiektuan antzematen duguna. Haren oinarriekin bat egiten dugun arren, adierazi nahi dugu gure harridura eta erabateko gaitzespena prestakuntza-arloak eta gaiak antolatzeke moduaren aurrean. Teknologia hezkuntza baztertu egiten da, ia desagertzeraino, aipatutako Aurreproiektuan agertzen diren asmo orokorrekin eta Europako eta nazioarteko aholkuekin kontraesan nabarian.

Hutsegite larri hau salatu beharrean gaude, dudarik gabe gure ikasleen etorkizuna eta, beraz, gizarte osoarena arriskuan jarriko bailuke. Denon bizitzan teknologiak leku nabarmena badauka ere, haren garrantzi handia aintzat hartu gabe antolatu nahi dute irakaskuntza. Gure iragan atzerakoira itzuliko ginatete horrela, goi mailako eta bigarren hezkuntzarako sarbidea pertsona bakan batzuentzat bakarrik zabalik zegoenean, kultur, finantza eta produkzio elitearen lanpostuak betetzeko aukeratuak. Hauxe da, hain zuzen, gure Hezkuntza Sistemaren disfuntzio larrienetako baten kausa: ikasgeletan bultzatzen diren eduki eta lan egiteko moduak hezkuntzaren behar eta interesetatik urrun egotea, gizarte osoaren ongizate eta garapena sustatu behar duen hezkuntza alegia.

1990eko Hezkuntza Sistemaren Antolamendu Orokorrerako Legearen (HSAOL edo LOGSE deritzona) bertutetariko bat, eskema hoiak gainditzea izan zen eta teknologia gaia hezkuntza maila desberdinetan sartzea: Lehen Hezkuntzan teknologia edukiak gehituz, Bigarren Hezkuntzan “Teknologia” arloa sortuz, ikasturte guztitan jorrazteko aukerarekin eta Batxilergoan “Teknologia” modalitatea gauzatzuz. Izan ere, Hezkuntza Sistema ekintza teknologikoekiko mesprezu jarreran errotua zegoen, gaur egun erabat onartezina dena eta, horrela, zegoen hutsunea betetzea zen asmoa.

Hamaika-hamabi urte hauetan, teknologia irakaskuntzak egindako ibilbidea izugarri zaila izan da, ez bakarrik gai berria izateagatik, baizik eta bere ezarpenerako izan den laguntza faltagatik batez ere, askotan oztopo eta eraso bihurtuz: kurrikuluma hain zabala izanik, ordutegia murriztean, pertsonal eta material baliabideen hornikuntza txikiegia emanez, edota Batxilergoko teknologia ikasketetara sarrera oztopatzean.

Ororen gainera, Zientzia, Ingenieritza eta Arkitekturan titulazioa duen irakasle mordo batek balio eta izaera berritzaile handiko hezkuntza jarduerak ezagutzera eman dituzte.

Irakasleon ahalegin honi Esker gaur egun gure eskoletako Hezkuntza Teknologikoa ezin bestekoa da honako arrazoiengatik:

- Giza eboluzioan zehar hedapen eta garantzia handia, izan dituen eremu kulturalen aritzen delako.
- Eskuarteko arazoak gainditzeko funtzesko giza gaitasunak garatzen dituelako.
- Kontuan hartzen badugu XXI.mendeko hiritarren lan-jarduerak giro arrunt teknologikoan eginen direla, haien prestakuntza teknikoa segurtatzen du.
- Profesionalek ekoizpen-sisteman egiten dituzten jarduera teknologiko guztien balioa eta duintasuna estimatzen ditu.
- Goi mailako ikasketa zientifiko-teknologikoetarako bidea irekitzen eta, ikertzaile kualifikatuena eskaera segurtatzen du.
- Garapen teknologikoari buruzko gogo eta kritiko bultzatzen du. Horretarako, gorapen horren printzipioak eta prozesuak izanen ditu kontuan, eta ez ikuspegi magikoak edo demagogikoak.
- Laguntzen du gainditzeko emakumeak, sexu diskriminazioagatik, lanbide teknikoetan formatzeko eta aritzeko dituen zailtasunak.
- Hainbat kontzeptu zientifiko eta matematikoei funtzionaltasuna ematen die, eta kontzeptu horien ikasketa sendotzen du.
- Ikasleentzako kinadak eta interes handiko lan giroa sor erazten ditu, non lan taldea zein lankidetzak eta erantzunkizun bere gain hartzea sustatzen baitu
- Geure gizartean gero eta balorazio handiagoa duten gaitasunak indartzen ditu, hots, sormena, autonomia eta izaera ekintzailea.

Aipatutako arrazoi bakoitza nahiko izango zen Teknologia ikasketak Hezkuntza Ordenamenduan ager ditzala, erabakitazunez. Arrazoi guztien gehiketarako oraingo Hezkuntza Sistema baten oinarri bihurtzen du Teknologia Hezkuntza, batez ere, dagozkion pertsonen formakuntza integrala xedea bezala izaten badu. Hau dela eta, zera eskatzen dugu:

- ⇒ **TEKNOLOGIA-HEZKUNTZARENTZAKO DERRIGORREZKO IRAKASKUNTZAN OINARRIZKO ETA FUNTSEZKO IKASKETAK IZATEA ERREKLAMAZIOA EGITEN DUGU**
- ⇒ **TEKNOLOGIA MODALITATEKO IKASGAIETAN OINARRITUTA DAUDEN BATXILLERGO FORMAZIO BIDEEN BEHARRA PLANTEIATZEN DUGU, ZEINEAK GOI MAILAKO ZIENTZIA-TEKNOLOGIA IKASKETEI ZUZENDUTAK BAITIREN**
- ⇒ **HEZKUNTZA MAILA GUZTIETAN TEKNOLOGIAREN IRAKASKUNTZA SUSTATZEN DUEN PREMIAZKO AHALEGIN BAT, BAI BALIABIDE ZEIN BALDINTZETAN, HEZKUNTZA AGINTARIEI ESKAERA EGITEN DIEGU**

Teknologia Irakasleri Elkartearen Estatuko Plataforma

APTA (Andalucía); APTA (Ávila); As. Agustín de Bethencourt (Canarias); APTC (Cantabria); APTC (Cataluña); APTCR (Castilla-La Mancha); APTEX (Extremadura); APETEGA (Galicia); APTELE (León); APTE (Madrid); ATECMUR (Murcia); NATIE (Nafarroa); APTLR (La Rioja); APTCV (Comunidad Valenciana); APTEVA (Valladolid) APTER (Aragón)